

Santa Kruz, apaiza (biografia)

Deia, 1983-07-27.

Orain ehun eta hamar urte pasa zuen Santa Kruz apaizak, 1873 garrengo uztailak 10, ipar alderako muga faltsua, karlistak berek hemendik botata.

Sartu zen berriz, baina ukatua zegoen.

Merezi du gizon honen jokabideak irazkinik; baditu, nire ustez, gutxienez lau ikuskera: *gizaki*, *gerrilero*, *apaiz*, eta *mito* bezala ere.

Gaur biografia laburra ematen saia nadin.

Manuel Ignacio Santa Cruz Loidi zuen izena; Gipuzkoako herri txiki batetan jaio zen, Leizaranen urertzean dagoen Elduaienen, 1842an. Apaiz egin eta Tolosa inguruko herrixka batetara, Errialdera, destinatu zuten. Hogeita hamar urterekin joan zen mendira, 1872an, bigarren gerra karlistaren hasiera-hasieran.

Orixek dionez, Espainiako independentziako gerran Merino apaizak eman zuen exenpluak eraginda.

Esaten dute ez zuela bostehun-seirehun gizon bere mende zituen apaizak berak tirorik inoiz bota. Hala ere, egin zituen bereak. Baina gaurkoz goazen batez ere nondik nora ibili zen laburki esatera:

1872garrengo ekainean agertu zen lehenengo aldiz Azkoitia inguruan hogeita gizonekin; bi hilabete gero, Bizkaiko Arrazolan harrapatu zuten, eta Aramaioko udaletxean gordeta, hur-hurrean, fusilatu zain zeukatela ihes egin zuen.

Ekintza honetatik aurrera hasten da mito sortzen.

Karlisten bigarren gerrako hasiera hau gaizki joan zitzaionten, eta Zornotzako komenioarekin laster amaitu zen. Bigarren eraso izan zen egitazkoa, eta hau gertatzen ari zirela sartzten da Santa Kruz Behobiatik talde baten buru 1872garrengo abenduaren lehenengoan. Oiarzungo "Portuberri" baserriko nagusia *beltzen* laguna zelako makilaz zigortuaz hasten du kanpaina.

Hil zituen gizon batzu, espioi zirelako: emakume bat ere bai Aretxabaletan, arrazoi beragatik. Liberalak bando bidez (urtarrilak 14 Tolosan eman eta Gipuzkoa guztian zabaldu) hamar mila pezeta eskaini zituen Santa Kruz harrapatzen zuen edo zutenentzat; honez gainera Mikelete guztiak bere atzetik bota zituzten. Oso bere gisa ibiltzeko gizona zen eta karlisten buru zen Lizarraga bera ere aurka zuen; bien artekoa itxusitu zenean, hasi ziren bitartekoak konponketa bila, baina Santa Kruz berean, eta Endarlazan karabinero mordoa hil ondoren (1873garrengo uztailak 10), mugaz haruntz joan behar izandu zuen; itzuli zen, baina ez zuen erregeak hartu nahi izan, eta azkenean berez alde egin zuen (1873garrengo abenduan). Lehendabizi Josulagunekin Frantziako Lille-en, egon zen Erromatik meza emateko dispensa berriaren zain; gero, Londresera: hemen bisitatu zuen Karlos VII garrena, dagoeneko exilioan, eta hemendik Josulagun ingelesekin joan zen Jamaicako misio batetara, hamabost urte egin zuen bertan. Gero,

Colombia-ko Pasto-ra, eta hemen Josulagun bezala, hil zen 1926 garrengo abuztuak hamar.